

**IRISGARRITASUNARI BURUZKO
ARAUDIA 2019KO MAIATZEKO
HAUTESKUNDEETAN:**

- Hauteskunde Araubide Orokorraren
5/1985 Lege Organikoaren 3. eta 87.
artikuluak.

- Bizitza politikoan eta hauteskunde
prozesuetan parte hartzeko oinarrizko
baldintzei buruzko arautegia. (martxoaren
25eko 422/2011 Errege Dekretua).

- Bozketa irisgarriaren (braillezko
dokumentazio osagarriarekin) prozedurari
buruzko abenduaren 7ko 1612/2007
Errege Dekretua.

Abenduaren 7ko 1612/2007 Errege
Dekretuak araututako boto irisgarriaren
prozedura, ikusmen desgaitasuna duten
pertsonei sufragio eskubidea egikaritzea
errazten diena, garatzen duen
abenduaren 21eko INT/3817/2007
Agindua.

INFORMAZIOA ETA KONTSULTAK:

Informazio orokorrerako telefonoa: 060

Boto irisgarrirako telefonoa: 900 150 000

**DESGAITASUNA DUTEN BOTO-
EMAILEENGANA ZUZENTZEKO
GOMENDIOAK:**

1. Jokatu naturaltasunez eta
errespetuz.
2. Galdetu lagundu aurretik.
3. Erabili zentzua.
4. Izan zuhurra kontaktu fisikoarekin.
5. Erraztu hauteslekuan sartzea eta
Hauteskunde mahairainoko
ibilbidea.

Triptiko honen egileak:

- Barne Arazoetako Ministerioa
- Desgaitasuna Artatzeko Bulegoa
(Desgaitasunaren Kontseilu Nazionala).
- Osasun, Kontsumo eta Gizarte Ongizate
Ministerioa.

**IRISGARRITASUN GIDA
2019KO MAIATZEKO HAUTESKUNDEAK
ERRAZ IRAKURTZEKO BERTSIOA**

www.infoelectoral.mir.es

infoelectoral@interior.es

HAUTESLEKU ETA HAUTESKUNDE MAHAI IRISGARRIAK

Hauteslekuek espazio irisgarri bat izan beharko dute, Hauteskunde mahaitik hurbil, boto-emaileek boto paperak pribatuan aukeratu ahal izateko.

Mahaiko kideek botoa autonomiaz eman daitekeela jagongo dute.

HAUTESKUNDE MAHAIK OSATZEN DITUZTEN PERTSONAK

- Hauteskunde mahaia osatzen dutenek jakinarazpen eta eskuliburu bana jasotzen dute.
- Irisgarritasunari buruzko edozein eskari edo kexa Eskualdeko Hauteskunde Batzordera bidali behar da.
- Pertsona gorrek, jakinarazpena jaso ondoren, 7 egun dituzte zeinu hizkuntzako interpretearen doako zerbitzu bat, edo indukzio begizta bat, beharren arabera, eskatzeko. Idazki bidez eskatu behar zaio Eskualdeko Hauteskunde Batzordeari.

BRILLEZ IRAKURTZEN DAKITEN PERTSONA ITSUEN BOZKETA IRISGARRIKO PROZEDURA.

Brillez dakiten itsuek prozedura eska dezakete Barne Arazoetako Ministeriora deituz, 900 150 000, apirilaren 2tik 29ra. Botoa emateko prozedura hau aurrez aurrekoa da. Hauteskunde mahaian botoa aurrez aurre ematea elkarrezina da botoa posta bidez ematearekin.

OHAR GARRANTZITSUA: ITSUENTZAKO BOZKETA MALETIN IRISGARRIA HAUTESKUNDE MAHAIAN EMATEN DA.

Pertsona itsu batek prozedura eskatu bazuen, hauteskunde egunean Hauteskunde mahaian hau egongo da:

1. Zerrenda bat eskatzaileen nortasun agiriekin. Hauteskunde mahaian maletina zerrenda horretan daudenei baino ez zaie emango.

2. Maletin bat Europako Parlamentuko hauteskundeetarako eta bestea hauteskunde autonomikoetarako, eta bakoitzean eduki hau.

- Maletinaren barruan dagoen dokumentazioa nola erabili azaltzeko braillezko gida bat.

- Bozketako gutun azal bat.

- Estalki handi bat, barruan hautagai zerrenden izena duten estalki txiki batzuk (tintaz eta braillez etiketatuta) dituena.

Estalki bakoitzaren barruan dagokion boto papera (estandarra) egongo da.

Botoa eman ondoren kit guztia eta soberako materiala berak eramatea gomendatzen zaio boto-emaileari, botoaren sekretua ziurtatzeko.

GOMENDIO OROKORRAK

1. Jokatu naturaltasunez eta errespetuz.

Desgaitasuna duten pertsonak autonomoak eta independenteak dira eta horrela tratatu behar dira.

2. Galdetu lagundu aurretik.

Ezer egin aurretik informa zaitetz nola lagundu dezakezun, eta beti zuzendu behar zatzaizkio desgaitasuna duenari, ez laguntzaileari.

3. Erabili zentzua.

Gorabeheraren bat baduzu eta ez badakizu nola jokatu, jo ezazu Hauteskunde mahaiko mahaiburuagana edo Administrazioak hauteslekuan duen ordezkariagana. Ilarak sortzen badira, gomendagarria da mugikortasun murriztua dutenek lehenengo ematea botoa.

4. Izan zuhurra kontaktu fisikoarekin.

Mugikortasun murriztua duten pertsona batzuek besoak behar dituzte oreka mantentzeko, beraz saihestu egin behar da kontaktu hori.

5. Erraztu hauteslekuan sartzea eta Hauteskunde mahaira heltzea.